

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Barcina Lehendakariak Soria ministroari eskatu dio funtsak jar daitezela energia berriztagarriak ikertzeko

*Nafarroako Gobernuak sektoreari laguntza ematea nahi du I+G+ b-ri emandako laguntzen bidez ekoizpenari emandako primak kentzean*

Martes, 13 de marzo de 2012

Nafarroako lehendakari Yolanda Barcina Angulo Industria, Energia eta Turismoko ministro José Manuel Soria López-ekin elkarrizketatu da gaur arratsaldean Diputatuen Kongresuko egoitzan. Lehendakariak energia berriztagarrien sektoreko enpresek ikerketa eta garapenerako (I+G+b) laguntzak jasotzeko duten beharra helarazi dio ekoizpenagatik jasotzen zituzten primen kentzea konpentsatzeko.



Barcina Lehendakaria eta Soria ministroa energia berriztagarrien egoera eta etorkizunaren inguruan gaur izan duten elkarrizketan.

Barcina Lehendakariarekin batera, Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilari Lourdes Goicoechea ere izan da elkarrizketan, eta baita [Energia Berriztagarrien Zentro Nazionaleko \(Cener\)](#) zuzendari José Javier Arméandariz ere.

Soria ministroak harrera ona egin die kontuen murrizketari lotutako berriztagarrien sektorean egin beharreko inbertsio teknologikoei, elkarrizketaren amaieran Barcina Lehendakariak azaldu duenez.

Testuinguru honetan, Espainiako Gobernuak INNTECMAR proiektuari babesa ematen dio. Proiektu hori Kanariar irletako Plataforma Océánicaren entsegu-arloan energia eolikoaren ikerketa eta garapenari buruzkoa, eta haren helburu nagusia 5MWeko aerosorgailu bat instalatu eta operatzea da ([Gamesa](#)k egindakoa) zimendatze finko berritzaile baten gainean (Kanariar irletako [Grupo Ingeniería Océánica](#) enpresa). Proiektu honetan, [Cener](#)ek aerosorgailua kokatuko den plataforma eraikiko du, Nafarroako Alaitz mendilerroan eraiki denaren antzekoa.

Ministroa bat etorri da ere Ministeriori atxikitako [Energia Aurrezteko eta Dibertsifikatzeko Institutuak \(IDAE\)](#) Eraikuntzako Eraginkortasun Energetikorako Inbertsio Funtsan parte har dezan, eta Nafarroako Gobernua sustatzen ari dena batez ere izaera pribatuaren aldetik, [Sodena](#)

enpresa publikotik 3 milioi euro jarritz, eta [Cener](#) kudeaketa-sozietatean sartuz.

Azkenik, bilkuran erabaki da IDAEko zuzendari nagusi Fidel Pérez Montesek Cener Fundazioaren patronatuan parte hartuko duela, Nafarroan egoitza duen erreferentziazko zentro honek Nazioko Gobernuarekin elkarrizketa edo harremana hobetu dezan.

Espainia munduko erreferentzia da nazioarteko merkatuetan lidergoan dauden enpresekin, sektore eolikoari lotutako 100 industria-zentrotik gora, eta haietatik 18 aerosorgailuen muntaia-lantegiak dira, eta 17.900 lanpostu zuzen ditu. Alde horretatik, Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak irizten du Espainian instalatutako gaitasunaren egungo soberakina, ekoizpeneko primak kentzeko errege dekretuan emandako arrazoietakoa bat dena, egoeraren arabera dela; beraz, beharrezkoa da I+G+b sektoreari laguntza ematen jarraitzea.

Nafarroa erkidego aitzindaria da energia berriztagarrietan. Bertan sortu zen 1989an sektoreko lehen enpresetako bat (EHN, orain Acciona), eta energi eolikoko lehen aerosorgailuak El Perdon mendian jarri ziren 1994an. Harrezkero, Foru Erkidegoaren energia-balantzeari berriztagarriek egindako ekarpenak nabarmen egin du aurrera, eta 2009tik Nafarroak 2020rako EBak jarritako helburua betetzen du, hau da, energia berriztagarriek azken energia-kontsumoan % 20 baino gehiagoko pisua izan behar dutela. Berriztagarriek sortutako elektrizitatea Nafarroako biztanleek eta bertako enpresek kontsumitutakoarekin lotzen bada, kuota % 80ra heltzen da.

2010ean, Nafarroako energia-faktura 1.942 milioi eurokoa izan zen (lurraldeko BPGaren % 10). Berriztagarrien eta Kogenerazioko energia-ekoizpena 4.413 milioi megawatt/h-koa izan zen, hau da, Nafarroako ekonomiarako 468 milioi euroko diru-sarrera ekarri zuen (BPGren % 2,4). Alderatzeko datuetan, energiaren merkatuak nekazaritza-sektorearen pisu bera du Nafarroan.